MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2013ko otsaila 125. zenb.

KALAPUTXI



Mutriku bizilekutzat aukeratu duen extremadurarra

LORENZA
Reja Cabanillas

Gora emakumeon borroka !!!

"Arbitratzen gozatu egiten dut"

Txakurrekin terapia egiten

Gure errotak: Errotaberri

aek 18.korrika

EMAN
2013ko martxoaren 14tik 24ra
EUSKARA
Andoainetik Baionara
ELKARRI

Euskal Herriko emakumeon mundu martxa
INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGINEZ

GORA EMAKUMEON BORROKA!

martxoak 8

Aliprox

Zure marka

liderra den Talde baten babesarekin

gure bezeroengandik
beti hurbil

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	8
Osasuna	10
Karenka	12
Lapazorrikeixak	14
Historixa	15
Kirola	16
Bertsuak	18
Hezkuntza	19
Zorion agurrak	20
Argazki zaharrak	21
Agenda	22

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen-iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.
Telefonoa
635 748 393
e-maila
kalaputxi@topagunea.com
kalaputxi2001@gmail.com
Bloga
kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea
Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi, Josu Ituarte, Josu Larrañaga, Javi Castro, IXA sexualitate eskola.
Tirada
2.200 ale
Lege Gordailua
SS-787/01
ISSN
1579-4792
Inprimategia
EUSKALINPRI. Deba
Banaketa
Kalaputxi

iritzixa

HAU EGIN DEZAKET!

Ogi gogorrari hagin zorrotza, dio esaera zaharrak; garai gogorrei irribarrea, baikortasuna eta konfiantza baina ez da erraza. Ez da erraza, gizon gazteak eta andre gazteak lanik gabe batera eta bestera ikusten direnean, ez da erraza finean dabiltzanak bizitzeko lanak dituztenean, etxerik gabe eta jatekorik gabe gelditzen direnean, eta tranpatan eta iruzurrak eginaz aberastu direnak hara joan eta hona etorri zigor handirik gabe lehengo moduan jarraituko dutela ikusten dugunean. Ez da erraza, ez, irribarrea ezpainetara ekartzea, bizitzari baikortasunez begiratzea eta norbere buruari eta inguruari konfiantza ematea.

Hala ere, gauza bat dago argi, norbere arazoei irtenbidea norberak bilatu behar diela eta ez da nik asmatutakoa, Elsa Punsetek (telebistako REDES programako kolaboratzaileak)ere horixe bera esan zuen orain dela gutxi, Lea Artibai Ikastetxean antolatutako hitzaldi batean. Beraz, Mutrikuko herrian ditugun arazoei herritarrok bilatu beharko diegu irtenbidea. Baina nola? Orain esango dudana ere ez da nire lapikotik sortutakoa, baizik eta Elsa Punseti entzundakoa, egunero jaiki, prestatu eta lan bila ekin behar dio lanik gabe dagoenak, edo bere inguruan dituen lanei erantzun behar die gainerakoek, “hau egin dezaket eta egingo dut” bere buruari esanda.

Horrela hasi behar dugu Mutrikun bizi garenok ere, lehenengo zer dagoen ondo eta zer dagoen gaizki aztertu eta ondoren, konponbidea jartzen. Batzuetan bakarka eta besteetan taldeka ekin egin behar diogu. Santa Eskeko adibidea bertan daukagu. Bertso eskolak dei egin zigun kultur taldeetakoei Santa Eskean irteteko. Martxan hasi eta sekulako jende pila elkartu ginen, goizean hiru talde atera ginen, niri Astigarribia, Olabarrieta eta Langa bailaran ibiltzea tokatu zitzaidan eta gustura ibili nintzan, talde handia, makila soinu ederra eta kopla amaitutakoan koro ederra kantuan “Dios te salbe, ongi etorri…..” Ongi etorri, bada, bertso eskolak izan duen ideia.

Herrigintza erakundeen esku utzi izan dugu urte askotan, eta , egia esan, ez dio mesederik egin herriari. Herria eta herriko gauzak guztionak dira eta norbereak bezala zaindu behar ditugu eta norbereak bezala zaintzen erakutsi. Txikitan ikasitakoak betirako balio du.

Arantza Ugarte

Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailordetza
EUSKO JAURLARITZA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mutrikuko Udaleko
Kultura eta Euskara Batzordea

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00

Zaintzako botikak:

Otxagabia (Mutriku)	689 58 57 59
Apraiz (Mutriku)	630 05 50 97
Zalduegi (Deba)	669 26 22 01
Burgoa (Deba)	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Turismo bulegoa	943 60 33 78
Bake Epaitegia	943 60 70 49
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua	943 60 34 18
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz Frontoia	688 64 31 80
Ur partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Anai Arte	943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola	943 60 36 75
San Miguel ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 35 45
Udal euskaltegia	943 60 30 94
Musika eskola	943 60 37 80
Haur eskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia	638 672 383
Anton Taxia	666 221 999
Xabi Taxia	656 289 026
Pesa autobusak	902 10 12 10
Eusko Trenbideak	902 54 32 10
Loiuko aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Iberdrola	901 20 20 20
Kofradia	943 60 32 00
Posta zerbitzua	943 60 30 44
Gasolindegia	943 60 32 10

ordutegiak

Autobusak

MUTRIKUTIK → DONOSTIARA

Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak	10:00 / 16:30
Jai egunak	10:00 / 19:30

DONOSTIATIK → MUTRIKURA

Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak	11:30 / 19:30
Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKUTIK → BILBORA

ASTEGUNETAN GOIKO ERROTONDATIK

06:25 / 07:25 / 15:25

BILBOTIK → MUTRIKURA

14:10 / 18:10 / 20:10

MUTRIKUTIK → DEBA - MALLABIA

Astegunetan: 7:15etik 21:15era orduro.
Jai egunetan: 8:15etik 21:15era orduro.

MUTRIKUTIK → ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, orduro.
Jai egunetan: 7:55etik 20:55era orduro.

Trenak

Orduro ateratzen dira adierazitako ordu tartean.

DEBA → DONOSTIA → DEBA

Debatik	6:44 – 7:44 - ...- 21:44
Donostiatik	5:47 – 6:47 - ...- 20:47

Jai egunetan 8:44etan lehenengoa.

DEBA → BILBO → DEBA

Debatik	6:43 – 7:43 - ...- 20:43
Bilbotik	6:00 – 7:00 - ...- 20:00

Jai egunetan 8:43etan lehenengoa.

DEBA → EIBAR → DEBA

Debatik 6:43 - 7:43 - … - 21:43
Jai egunetan, 8:43etan hasiko da

Eibartik 6:13 - 7:13 - ... - 21:13
Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

ZERO ZABOR, POSIBLE AL DA ATEZ ATEKORIK GABE?

Azken boladan hiri-hondakinen arazoaren gaia desitxuratu eta sinplifikatu egin da. Ondorioz, informazio falta haundia dago, eta oinarririk gabeko zurrumurruak eta usteak zabaldu dira herritarren artean.

Hori guztia argitzeko MZZ taldeak egitasmo bat martxan jarri du Mutrikun. Datozen asteetan hondakinen kudeaketaren inguruko aurkezpen sorta burutuko du auzoz auzo, izenburu honekin: "Zero zabor, posible al da atez atekorik gabe?"

Hiri-hondakinen arazoa

Denok bat gatoz, hiri-hondakinen arazoa larria dela esatean, ingurumen krisi jasanezina daukagu: hondakin asko sortu eta nahastuta botatzen ditugulako zabortegiak gainezka daude, natur baliabideak edo lehengaiak agortzen ari dira, kutsaduraren eraginez gure osasuna kaltetu eta ingurumena arrisku bizian jarri degu...

Arazoaren jatorria

Lehengaien neurrigabeko ustiapen edo explotazioak, kontsumo eredu konpultsiboak eta hondakinen kudeaketaren gaurko eredu linealak (ekoiztu-kontsumitu-bota) eraman gaitu amildegiaren ertzera.

Konponbidearen beharra

Arazoa ezin degu ezkutatu edo betikotu (erraustegia bezelako sasi-konponbideen bidez): denbora amaitzen ari denez, konponbideak, iraunkorra izateko, berehalakoa eta eraginkorra izan behar du.

Konponbidearen gakoa

Gakoa: guztion kontzientziazioa, konpromisoa eta ardura (herritarrak, eragileak, administrazioa). Udalek eta mankomunitateteek, erabaki egokiak eta ausartak hartuz eta herritarrok gure eguneroko ohitura sinple batzuk aldatuz arazoaren konponbidea norabide egokian jarriko degu.

Herritar guztiok arazoaren eragile garenez (denok sortzen ditugu hondakinak) konponbiderako agente nagusia ere herritarrak izan behar du., konponbidea guztion ardura baita. Beraz, mutrikuar guztion konpromisoa ezinbestekoa da konponbide eraginkorra lortzeko. Herritar askoren jarrera eredugarria ez da nahikoa: kontsumo arduratsua, berrerabilpena, birziklapena eta hondakinen murrizketa guztion beharra da. Birziklatzea ezin da borondatezko ekintza izan, edo hobeto esanda: kutsatzeko eskubiderik ez dago.

Konponbidea

Pertsonen osasuna kaltetu gabe, ingurumena zaindu eta ekonomikoki merkeagoa izango den eredua behar degu: Ekoizpen edo produkzio eta kontsumo eredu zirkularrean (ekoiztu-kontsumitu- birziklatu) oinarritzen dena. Hori lortzeko bitartekoak: gure egunerokotasunean hiri hondakinen murrizketa (ekoizpen eta kontsumo arduratsua, berrerabilpena, autokonposta), birziklapena (sortzen ditugun hondakinen %90a birziklagarria da), eta gaika biltzeko sistema eraginkorra.

Harremanetan jartzeko: *mutrikuzerozabor@gmail.com* eta informazio osagarriak aurkitzeko: *www.gipuzkoazz.com* Europa eta mundu mailako berriak izateko: *www.zerowasteeurope.eu / www.zwia.org* itzultzaile eta guzti euskera barne.

Mutriku Zero Zabor Taldea

SALAKETAREN AURREAN

Urtarrilaren 16an eta 23an HITZA egunkariak niri buruzko informazioa kaleratu zuen, eta bertan zioen ATEA elkarteak salaketa jarri zuela nire kontra, nire txakurrek tratu txarrak jasotzen zituztelako. Badakit, Gipuzkoako beste komunikabideetan ere ibili dela notizia bolo-bolo eta kontua argitu nahiko nuke.

Nik guzti honen berri YouTube bidez izan nuen, bertan ikusi nituen-eta nire txakurrei ateratako irudiak. Irudi hauek Kepa Tamames izeneko batek zintzilikatu zituen. Ez dakit zein izan zen irudiak atera zituena, baina hor daude.

Nik neure defentsan esan behar det, beterinarioak egindako txostena daukadala, non bertan esaten duen nire txakurrak ondo zainduta eta osasun onean daudela.

Txakurrak edukitzeko, baldintzak bete behar dira eta nik baldintza guztiak betetzen ditut, eta horien frogak Udaletxearen eskuetan jarri nituen salaketa jarri eta hurrengo egunetan (txostenak, kartilak... nire txakurren informazio dana). Beraz, ATEAk dioen guztia gezurtatu nahi dut lerro hauen bidez. Hamabost urtetik gora da txakurrak hor ditudala eta sekula ez da inor kexatu. Tratu txarra aipatzen denean jakin nahiko nuke zertaz ari diren; egunero ematen diet jaten, ateratzen ditut mendira, kontrol danak egiten dizkiet… Nik zazpi txakur ditut eta badakit nola eduki behar ditudan, badakit zein lege bete behar ditudan eta horrela egiten det.

Gaur da eguna inongo aldetik ez dudala erantzunik jaso. Gutun honek balio dezala gauzak bere lekuan jartzeko.

Karlos Barrenetxea Alberdi

ELA, LAB eta STEE-EILASeko irakaskuntza arduradunak prentsaurrekoan urtarrilaren 15ean Bilbon. Bertan Espainiako hezkuntza ministro Jose Ignacio Wertek iragarri duen erreformari aurre egitearen beharra azpimarratu zuten. Horretarako, besteak beste, mobilizaziorako deia zabalduko zaie hezkuntza-komunitateko eragile ezberdinei, martxoaren 2an Euskal Herriko kaleetan erantzun erraldoia eman asmoz.

LOMCE LEGEAREKIN BUELTAKA

Denbora gutxian, erreforma ugari, ezta?

Guk ikusten dugun akatsa potoloa da, oso denbora gutxian erreforma asko eta sakonak eman dira. 1990 urtean LOGSE legea ezarri zuten. Urte batzuk beranduago, 2006an, LOE legea etorri zen eta, oraindik legea guztiz garatu gabe dugunean, LOMCErekin datoz. Orain arte, gure Erdidegoan piskanaka eraman da ezarpena, DBHtik hasi, Batxilerrean jarraitu eta Lanbide Heziketan bukatuz; hau da, legea ez dago garatuta bere osotasunean. Krisia dela medio, Lanbide Heziketan atzeratu egin zen. Batzuk egokitu egin behar izan ziren LOGSEtik LOEra pasatzeko, eta orain Espainiako gobernu berriak berriz aldaketa bat egiten du. Ematen du gobernura iristen diren guztiek dena aldatu behar dutela. Heziketa-komunitatearentzat sarraskia da. Filosofiarekin edo ez dakit zerekin ados ez egoteak ez du esan nahi goitik behera aldatu behar denik hezkuntza-legea. Denbora bat eman behar da emaitzak eta ondorioak ikusteko.

Aldaketa sakona ekarriko luke lege berriak?

Izugarrizko aldaketak aurrikusten ditu horrek, DBH dena aldatzen da, asignatura berriak, eta arraroak. Adibidez, lehen, “Educacion para la ciudadania” zena, orain, “Educacion Civica y Constitucional” izango da. Gure ustean, legearekin 20-30 urte egiten dugu atzera, Batxilergoa eta Errebalidara goaz berriz. Gure kasuan behintzat datorren urtean jarriko genuke LOE legea martxan bere osotasunean, eta beste hau badator, zer egin behar dugu? Edozein arlotatik begiratuta ere, ez du zentzurik, ez ekonomia aldetik, ez pedagogiatik, ez metodologiatik… ez dauka ez hanka eta ez bururik. Guk uste dugu horrelako lege garrantzitsu bat kontsentsu edo adostasun handi batekin egin beharko litzatekeela. Hori estatu mailan. Gure erkidegoari dagokionez, autonomía guztiz urratzen du, euskal kurrikulua bertan behera aspaldi gelditu bazen ere. Orain arteko gure ahalmena ez bazen guk nahi adinakoa, lege horrek hutsaren hurrengo bihurtuko du, %75 Espainiaren esku egongo litzateke eta.

Gure hezkuntza propioaren kontua, oso urruti?

Gure ustez, lege hori onartezina da. PP bere gehiengo absolutuaz baliatzen da nahi duena egiteko, beste arlo askotan bezala, ekonomian, osasunean…. Sarraski sozio-ekonomikoaz gain, kultura, hezkuntza eta hizkuntz arloan ere nahi duena egiten ari da. Eta aurrez esan dugun bezala, guztiz atzerakoia irizten diogu. Autonomía bakoitzak zeukan kultur esparrua pikutara bidali baitu, ezerezean utzi. Nik uste dut hemen ausartagoak izan beharko ginatekeela. LOErekin euskal kurrikulua blokeatuta gelditu zen, eta Jaurlaritzak ez zuen ezer egin. Batzuek esan arren ez dutela horretan konpetentziarik, ezin gara mutu gelditu egoera horren aurrean.

Krisiarekin baliabideak ere murriztu egiten dizkigu-

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konta kalea 22, Mutriku

te, eta, horretaz gain, gure autonomía ere galdu behar badugu, zer gelditzen zaigu? Kudeatzeko ahalmena ere murrizten badigute? Gu gestore hutsak izango gara, eta kito!

DBHn ordu asko galdu dira azken urteetan, hezkuntza publikoan zigorrik handiena jaso duena DBH izan da. Lehenetsi edo priorizatu egin da hezkuntza pribatua baliabideetan eta dirutan, eta orain LOMCErekin askoz ere gehiago. Publikotasuna murrizten duen heinean, elitistagoa bilakatzen da. Gure erkidegoan, euskal nortasunak galdu egiten du, homogeinizatu edo espainolizatu egin nahi da, Catalunian egin nahi duten bezala, Galizian eta gurean ere halaxe egin nahi dute. Guk hori erreibindikatu egin beharko genuke. Hemen, bere garaian Jaurlaritzak neutralizatu egin zuen. Mementuz, krisi ekonomikoarekin ematen du gelditu egin dela, baina ikusten dugu PP zorrotz doala bere bidean eta inposatu egingo duela.

ELA gizalan

Murrizketak hemen ere…

Gure erkidegoan motelago edo leunago egin dira murrizketak, baina egin egin dira. Irakasleen ordezkapenak berandu egiten dira —egiten direnean—, proiktuetako orduak gutxitu egin dira, ia oharkabean baina ari dira, eta datozen ikasturteetan handiagoak izango direla ziur gaude. Hemen, beste era batera, baina ezartzen ari dira. Eskola pribatuaren aurrean eskola publikoa galtzen doa, bai kalitatez, bai baliabidez. Azken hori ezin dugu onartu inolaz ere, gure Eskola Publikoaren aldeko lanean, etengabe eta esparru guztietan jardun behar dugu-eta.

Hezkuntzaren kalitatea…

Ahalegin handi bat egin behar dugu ikastetxeetatik zein beste erakundeetatik hasita Jaurlaritzak ez dezan onartu legeak esaten duena. Badakigu lege organikoa dela eta derrigorrez bete beharrekoa, baina guk ere, diot, gure erkidegoak, gure eskumenak ditugula proiektuak garatzeko eta aurre egin behar diegula Madriletik datozen inposaketei. Zertan hasi behar dugu, mutilak mutilekin eta neskak neskekin, frankismo denboran bezala?

Hezkuntza komunitatetik oso kritikoak gara legea atzerakoia iruditzen zaigulako eta inguruan entzun diren ahotsek ere horixe diote. Hezkuntza-gremioko inorekin egon gabe egin dute legea. Erabakia politikoa da gure ustean.

Hainbeste lan eta buruhausteren ondoren, dena ezerezean gelditu behar da politikoek halaxe nahi dutelako? Organo Gorena ere deskafeinatua izango da. Eskola Kontseiluak ez du inolako ahalmenik izango. Sinbolikoa da, eta ezerezean gelditu ko da.

Eurijasek kalteak eragin dituzte herriko hainbat txokotan

Eurijasen ondorioak herriko puntu askotan nabaritu dira. Ohiko lurjausiak izan dira, han eta hemen, baina kalte handixeagoak ere sortu dira: Ondarroa bidearen alboko etxebizitza, Samikolla-Burumendi errepidea eta Samikollatik portura ematen duen pareta zatia, esaterako. Errepide alboko kalteak konpontzeko Udala Diputazioarekin harremanetan dago. Errepidea konpontzeko, berriz, Portuen Zerbitzuarekin adostasunera heldu dira, eta proiektua prest dago. Samikollako lurjausia dela eta, arrantzaleen zenbait txabola kaltetuta gelditu ziren.

Euriak ez ditu inaurteriak gelditu

Euriaren mehatxua gainean zutela pasa dira inauteriak herrian. Hala ere, Pikomelatosen kalejira egitea lortu zuten, eta dantzariek ere kalejira ez ezik, Goiko eta Beheko plazako emanaldiak egitea lortu zuten. Zapatuan, gainera, eguraldia lagun ez izan arren, eguerdi alderako asko izan ziren mozorrotzera animatu zirenak. Gauera arte luzatu zen jaia, eta herritarrek egun ilunari aurpegi alaia erakutsi zioten.

KOMIKIXA

Josu Ituarte "Pitxame"ren eskutik

16 aparkaleku egongo dira laster komentuaren parean

Komentu aurrean zeuden aparkalekuak egokitu ditu Udalak. Aparkaleku berriak zeharka jarriko dituzte. Ezinduentzako toki bat ere egongo da, eta aparkalekuen eta komentuko berdegunearen artean espaloia jarriko dute. Berdegunea ixten zuen pareta bota dute obra egiteko; horrela, berdegunea txukundu eta herritarren erabilerarako zabaldu dute. Obra herrigunean trafikoa gutxitzeko planari lotuta dago. “Beheko aldean hasi gara, baina goiko aldean ere neurriak hartuko ditugu herrigunean oinezkoek lehentasuna eduki ahal izateko”, azaldu dute Udaletik.

Herriko 112 familliek hondakin organikoa birziklatzea dute asmo

Sortzen duten hondakin organikoarekin ongarria egiten dute edo egingo dute herriko 112 familiek. Lurra dutenak mankomunitatearen bidez eskuratzen dituzte hartarako beharrezko jakintza eta baliabideak. “Oraindik ere izena emateko aukera dago. 902 102 885 zenbakira deitzea nahiko da”, diote. Lurrik ez dutenek ere badute aukera konposta egiteko: 943-60 32 44ra deituta edo auzokonposta@mutriku.net-era idatzita auzokonposta egiteko izena eman daiteke. Konposta eginda birziklatze tasa igo nahi dute. Izan ere, zabortegira botatzen dugunaren %40-50 hondakin organikoa da.

Korrika batzordea martxan dago eta ateak zabalik ditu

Korrika martxoaren 23an pasatuko da Mutrikutik. Haren etorrera eguna eta ingurukoak prestatzeko Korrika batzordea antolatu dute herritarrek. “Nahi duen guztiarentzat dago hemen lekua, eta parte hartzera animatu nahi genituzke herritarrak”, adierazi dute. “Denon artean prestatutakoa beti izaten da hobea!”. Bilerak eguenero, 20:00etan, Luardon izaten dira.

Santa Eskea Zine Forum taldearen alde egin da aurten

Bertso Eskolarentzat erdia eta beste erdia Zine Forumentzat. Horrela banatu zen Santa Eskean batutakoa. Aurten herriko kultur taldeen alde izango zela aurretu zuten. “Urtero herriko kultur talde bat izendatuko dugu eta jasotzen denaren erdia emango diogu”, azaldu dute Bertso Eskolakoek. 60 lagun inguru bildu ziren kanturako. “Aurrez parte hartu gabeko jendea ere izan zen tartean, eta datorren urtean berriz parte hartzeko asmoa ere agertu zuten askok. Haiei zein beti etorri ohi direnei, eskerrikasko benetan”.

TXAKURREKIN TERAPIA EGITEN

Entzunda geneukan zahar-etxeetan animaliak erabiltzen zituztela terapia egiteko. Poza, maitasuna, laguntasuna edo konpainia eta ilusioa sorrarazten dute animaliek pertsona nagusiengan. Bakardadea eta adinarekin batera etortzen diren beldurrak arintzeko ere aproposa da txakurrekin egiten duten terapia eta, primeran pasatzeaz gain, euren arteko giroa ere asko hobetzen da.

Eta hantxe izan gara Mikel Deuna egoitzan, *Txispa* eta *Lukas* txakurrekin Alain Maortuak egindako terapia saio batean.

Hasieran, aurreko egunetan ikasitakoak errepasatzen ibili dira: nola esan txakurrari etortzeko, zer egin etzan dadin, nola eskatu mantalera igotzeko,... eta horrelako gauzatxo batzuk, ahaztuta baitzeukaten gauza bakoitzerako eskuekin egin beharreko keinua. Oinarrizko gauzak errepasatu ondoren, txakurrari eskua eskatu eta eman eta laztan batzuk egin dizkiote. Gustura denak, euren txanda noiz ailegatuko zain!

“Gauza berri bat erakutsiko diogu: ea kartera ekartzen digun”, esan du Alainek. “Lehenengo pausoa: kartera lurrera bota, eta ekartzen badigu, saria eman”. Primeran egin du Txispak, eta goxokiak jaso ditu. “Bigarren pausoa: paseoan goazela kartera jausten bazaigu, ea berak jaso eta ekartzen digun. Aproba egingo dugu? Bai? Goazen, Txispa, etorri nirekin”… “Oso ondo, Txispa!” Txaloka hasi dira denak txakurraren abilezia ikusita. “Baina txakurrak ikusi egin du kartera, ezta? Zer uste duzue, ezkutatzen badiogu, kapaz izango dela kartera aurkitu eta geuri ekartzeko? Bai? Baietz uste duzue? Probatuko dugu?”, galdetu die Alainek. Eta denek batera, “Bai, bai, bai…”.

“Datorren egunean neuk ekarriko dut monedero bat”, dio Mercedesek. “Hori oso ideia ona da, zeren monedero guztiak ez dira berdinak, ezta?” esaten dio hezitzaileak. Txakurrak gelatik ateratzen ditu, eta Iñaziori tokatu zaio kartera ezkutatzeko eginkizuna. “Ea, Iñazio, non utziko dugu kartera, non ezkutatuko dugu?”. “Hementxe, hementxe”, dio Iñaziok, eta bere ondoan lagatzen du, eserita dagoen aulkian bertan, erdi ezkutuan. Hezitzaileak, orduan, txakarrak alboko gelatik atera eta kartera ekartzeko agintzen die. Txakurrak gelan batera eta bestera ari diren bitartean, Alainek galdera bat egiten digu: “Nola uste duzue aurkituko dutela? Zeri esker?” Eta denon erantzuna “usain eginda” izan den arren, ezetz dio berak, lehenengo, bista erabiltzen dutela txakurrek, eta horregatik ematen diotela gelari buelta osoa, batera eta bestera begiratuz. Berak azaldu digunez, horrela egiten dute begiak erabiltzea errazagoa delako. Baina ezin izan dutenez gordelekua ikusi, Alainek esaten digu usaimena erabiliko dutela gero. Eta hori esplikatzen ari den bitartean, Txispa usaintzen hasi da eta berehalaxe aurkitu du Iñaziok bere aulkian ezkutatu duen karteratxoa. Pozik eta txaloka, umeak bagina bezala ospatu dugu denok txakurraren trebezia.

Ondoren, kotxeko giltzak ezkutatzea erabaki dute, eta hantxe ibili dira denak ezkutalekurik onena zein ote den erabaki ezinda… Baina, lehenengo, txakurrari giltzak erakutsi dizkio Alainek, usaindu ditzan, eta, gero, gelatik atera ditu biak. “Gorde ipurdi azpian!” esan du norbaitek. “Ez, mahai azpian ez”, beste batek, hori erraza da-eta”… “Hor ez ditu topatuko” esaten du Iñaziok emozioz beteta, berak gorde dituelako giltzak. Izan ere, bera da jaiki eta makurtu eta batetik bestera ibiltzeko gai den bakarra. Ez du denbora luzerik behar izan txakur handiak, Txispak, altxorra aurkitzeko. “Listooo, oso ondo!” esaten dugu denok batera, txaloka. Arrazoia zuen Bisik, txakur handia izan da azkarrena giltzak topatzen; txikia, Lukas, zaborrontziko gaileta-kaxa huts bat usaintzen entretenitu da-eta.

Gero, txakurrei zenbat goxoki eman dizkieten kontuan hartu eta batuketak eginarazi dizkie buruz: “Juanitak, 4; Bisik, 3. Zenbat da hori? Eta, gainera, Mercedesek beste 4. Zenbat goxoki jan ditu denetara?”. Emakumeetako batek txakurrak enpatxatuko ote diren kezka ere agertu du. Lasai egoteko esan dio Alainek, gauean janari gutxiago emango diela-eta.

Zein da zure lanbidea, Alain?
Ni laguntza-txakurren trebatzailea naiz. Orain arte, itsuentzako gida-txakurrak bakarrik ezagutzen genituen, baina nik ezgaitasunen bat daukaten pertsonei bereziki lagunduko dieten txakurrak prestatzen ditut. Azkenengo prestatu dudan txakurra, esate baterako, distrofia daukan neska batentzakoa izan da. Aulki motorizatu bat erabiltzen du, baina eskuetan ez dauka indarrik eta eskaileretan, edo espaloietan, edo beste edozein koska pasatzean, eskua jausi egiten zaio, eta norbait eraman behar izaten zuen horrelakoetan laguntzeko. Hori zela-eta, ez zen etxetik atera ere egiten. Orduan, txakurrari erakutsi genion neskaren eskua bere lekuan ipintzen. Eta, gainera, etxean beste gauza asko egiten ere bai: ateak zabaldu, gauzak eraman… eta horrelakoak.

Ikasketa bereziren bat egin duzu?
Bai, laguntza-txakurren trebatzailea naiz. *Adiestrador de perros de asistencia* izeneko ikasketak egin nituen Madrilen.

Nondik sortu zitzaizun hori ikasteko gogoa?
Ba, ni beti ibili izan naiz txakurrak trebatzen, txakurrak eguneroko bizimodurako trebatzen. Orain arte, gehienbat, kirol-mailan egiten zen lana txakurrekin, defentsarako eta abar. Horretaz gain, bizitzarako heziketa dago, eta hori abilezia batzuk erakustea baino gehiago da: txakur orekatuak edukitzea da, eta horretarako kontuan izan behar da sozializazio on bat eduki behar duela txakurrak gaztea den bitartean. Adibidez, pertsona berezi hauekin lan egiteko, txakurrak kumea den bitartean ezagutu behar ditu eta ohitu behar da horrelako jende berezien artean ibiltzen; bestela, mesfidantza sentituko du. Gurpildun aulkietara, parkinsona daukaten pertsonen mugimenduetara,

desberdin ibiltzen den jendearengana eta abarrengana eraman behar da txakurra, gazte gaztetatik ohitu dadin.
Txakurtegitik jasotako txakur heldu bat eraman zuten zahar-egoitza batera, eta ez ziren ondo konpondu. Izan ere, txakur hark ez zituen gurpildun aulkiak, makuluak eta horrelako gauzak ezagutzen, eta, oso txakur ona izan arren, ezin izan zen egoera berri hartara ondo egokitu. Horregatik da hain garrantzitsua txakurren trebaketa ondo egitea.

LORENZA REJA CABANILLAS

Mutriku bizilekutzat aukeratu duen extremadurarra

la berrogeita hamar urte darama Lorenzak Mutrikun. Haurtzaroa eta nerabezaroa Villanueva de la Serenan (Badajozen) igaro ondoren, maitemindu, eta bere senarrarekin batera Mutrikura abiatu zen ezkonberritan. Ez zitzaion erraza izan 1964 hartan bizi berri batera ohitzea, baina urteak igaro ahala mutrikuartzen joan da, eta, gaur, extremadurartzat badu ere bere burua —eta betiko dio— nahiago du Mutrikun bizi. "Txoko"n, euren tabernan, jarduten du oraindik airos lanean.



Nolakoa izan zen zure haurtzaroa Villanueva de la Serena hartan?

Oso haurtzaro alaia. Nire aita udaleko funtzionarioa zen. Udalerako behar ziren zenbait lanetan parte hartzen zuen, baina, batik bat, basozaina zen, eta hori dela-eta herritik hurbil zegoen kortijo batean bizi ginen; etxe handia eta naturalezaz inguratua: abereak, baratza,… Zer gehiago behar genuen nire ahizpak eta biok zoriontsu izateko? Oraindik ere nire gogorapenik onenetakoak hangoxeak dira, etxekoekin eta eskolako lagunekin jolasean.

Noiz utzi zenuen eskola, eta zertan aritu zinen zure nerabezaroan?

Orduko estudio arruntak egin nituen, eta oraindik hamalau urte bete gabe hasi nintzen lanean mahats uztaren bilketan. Gizonak izaten ziren mahastietan uztak biltzen zituztenak, eta guk emakumeok bildutakoa kaxatan antolatzen genuen, batzuek garbitzen (espurgadorak), eta besteok tolesten (enrasadorak). Horrelaxe jarraitu nuen 20 urterekin ezkondu nintzen arte.

Nolakoa zen zuen bizitza lanetik kanpo?

Villanueva nekazaritzara bideratuta dagoen herri handia da (gaur 26.000 biztanle) eta, gertu, 5 kilometrora, Don Benito dago (40.000 biztanle inguru). Beraz, gazteei aukera handia irekitzen dien zonalde bat da. Igande eta jai egunetan gure herrira edo albokora joaten ginen, eta ez ginen, ez, aspertzen!

Halako batean aurkitu zenuen zure bizitzako mutila…

Bai. Nahiz eta nire senar zena, Jose Malave, Zalamea de la Serenan jaioa

JARRI-TOKI
Jatetxea
- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak
- Ezkontza, bataio, jaurartze...
Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

izan, une hartan Villanuevan bizi zen bere amarekin, eta —gauza hauek horrelaxe gertatzen dira— lehengusu baten bidez ezagutu nuen, eta elkarrekin ateratzen hasi ginen. Hamabost urte nituen orduan, eta berak hogei. Lehen aldiz berarekin egin nuen dantza lotuan.
Igeltsero lanetan jarduten zuen, eta bere arreba Consuelo tarteko zela, Mutrikuko "perratzaileanekoekin" jarri zen kontaktuan eta laster konbentzitu zuten hona lanera etortzeko. Oso denbora gutxi egin zuen "perratzailearenean", eta igeltseritzan diru gehiago irabazten zela-eta, bere ofiziora egin zuen berriro.

Jose hemen eta zu han, erremedioa bilatu behar zitzaion horri, ezta?
Urte batzuk bageneramatzan elkarrekin, eta nire ama ezkontzearen aldekoa zen (badakizue —orduko gauzak— ama ezkongabeak eta horrelako kontuek nolako garrantzia zuten). Beraz, hogei urterekin (sasoi hartan artean adingabea) gurasoen baimena eta bete beharreko gauza guztiak egin ondoren, 1963. urteko abenduaren 31n ezkondu nintzen, eta egun batzuetara hementxe nintzen Mutrikun.

Hainbeste kilometro egin ondoren nola aurkitu zenuen Mutriku?
Mutrikura heltzean, eguerdiko hamabiak, inola ere espero ez nuen egoera batean aurkitu nintzen: komentuko kanpaiak dantzan eta zaku-fabrika, Dentici, Yurrita, Busto eta inguruko beste lantokietatik langile guztiak, denak batera, bazkaltze bidean. Zer gertatzen da hemen? galdetu nion senarrari; hark esplikatu ondoren baretu nintzen. Sekula ez nuen ikusi halako jende andana pauso azkarrean.
Etxera iristean, arima hanketara! Etxe handian ohitutakoa ni, etxe txiki batera, ganbara bat, leiho txiki batzuk ia lurraren pare zituenak. Kostatu zitzaidan arnasa hartzea! Baina maitasunak dena gainditzen du, eta laster ohitu nintzen lurrean makurtuta edo erdi etzanda hamabiak jotzen zituztenean nire Josek nola irteten zuen Yurritanetik begiratzera, orduan fabrika berria eraikitzen baitzeuden.

Nola konpondu zinen herritarrekin?
Normala denez, hasera hartan familiako eta ezagunekin nituen harremanak, baina poliki-poliki etxepekoekin eta eguneroko bizitzak eramaten zaituen esparruetara zabaltzen hasten zara. Hiru etxebizitza ezberdinetan bizi izan nintzen, beti hobearen bila, eta batean edo bestean lagun-minak egiten joaten zara, azkenean herrian integratzen zaren arte. Gaur, neure etxean bizi naiz pozik.
Ezkondu eta urtebetera izan nuen Santi, seme zaharrena, eta ondoren etorri ziren Loren, Juan Vicente eta Sofia. Familiak are eta gehiago laguntzen dizu mutrikuartzen, nahiz eta ni extremadurar sentitu beti; hala ere, nahiago dut Mutrikun bizi. Agian, senarra bizirik balego, egun baino denbora gehiago igaroko nuke han, baina etorri bezala hartu behar dira gauzak, eta, segi!

Gaur taberna baten jabe zarete, eta hemendik ateratzen duzue bizimodua. Nola eman zenuten urrats hori?
Denbora hartan senarrak Itziarko gasolindegian egiten zuen lan, eta tabernaren jabe zenak, negozioa ez zihoakiola ongi ikusirik, senarrari eskaini zion traspasuan. Senarrak askotan jarduten zuen laguntzen Kuliska tabernan jai egunetan, ahal zenetik atera behar baitzen soldata, eta hamabost eguneko proba egin zuen. Taberna hartzea erabaki genuen, baina gasolindegiko lana utzi gabe. Gogor egin behar izan genuen lan; hala ere, kosta egiten zitzaigun aurrera egitea. Senarrak tabernan "kina" antolatzea proposatu zion Mutriku F.T.ko zuzendaritzari; haiek onartu egin zuten, eta arrakasta izan zuen ideiak. Onurak izan genituen bai Mutriku F.T.k eta bai guk. Ordutik aurrera, jende gehiago etortzen zenez, bizimodua erosoago ateratzen hasi ginen. Baina, jende pila hark sortzen zuen zaratagatik etxapekoen kexak etorri ziren, eta intsonorizatu beharra azaldu zen. Jabeak ez zuen nahi izan bere kargu hartu aldakuntza, eta, negoziatu ondoren, obrak aurrera eraman eta taberna erostea erabaki genuen. Berriro etorri ziren ordu luzeetako egunak zorren zulotik azaleratzen hasi ginen arte. Tartean, bizitzako harremanen oker-ulertzeak ere bai. Kostata, baina lasaitasunean gaude egun.

Zer nahi zenieke esan mutrikuarrei Kalaputxi bidez?
Eskerrak eman nahi dizkiet mutrikuarrei abegi onez hartu nindutelako. Gazte eta adinekoen lagun sentitzen naiz taberna honetan, eta, benetan diotsuet, balantza batean jarriko banitu Extremadura alde batean eta Mutriku edo, nahi baduzue, Euskadi bestean, ez nukeela asmatuko norantza okertu, biak maite ditudalako, eta bietan zoriontsu aurkitzen naizelako. Besarkada bat guztiei.

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

Animalixen ezkutuko zentzumena

Lehengo zaharrek, bai arrantzaliek bai baserritxarrek, ondo erreparatzen zixuen naturak izaten zitxuan aldaketei, haiziak eta laiñuak zirala, animalixen portaeria zala... Hortik hainbat kontu igartzen zitxuen: urrutiko eguraldixa, hurrengo orduetan egingo zoan eguraldixa...

Gaur egun, ostera, ze eguraldi egingo doan jakiteko norperaren intuizio hutsari eta telebistako iragarpenei baiño ez dixau kasu egitxen. Natura maitxatu bai, baiña sarritxan naturari bizkarra emanda bizi gera.

Mutrikun, beste euskal herrixetan bezela, animalixen portaeria ikusitxa hainbat gorabeheren berri eukitzen zeuen lehenguek. Mutrikun entzundako batzuk ekarriko ditxugu hona:

Kontu ezaguna da, adibidez, itsas txorixak –*kalatxorixak*, konparaziotako– itsasertzera hurreratu eta lihorrian gelditzen diranian, itsaso zabalian ez dala giro, itsaso txarra… *Hegaberak* bistatzen diranian hotz eta edurte handixak datoz. Udan, sikatia dauanian-eta *okilla* kantuan hasi ezkero, ti-ti-ti, laster eurixa egingo doan seiñalia. Holaixe zan esaeria: *Han, okilla eurieske!* Uso paso haundixa danian, hurrengo egunian eguraldi txarra, galernia edo mendebala (haizia)... *Antzar* asko pasatzen danian, bixaramunian hotza, *Frantzi-iparra* izeneko haizia-edo. *Kabidada txikixak* (Falco tinnunculus) toki jakin baten, geldi-geldi dabizenian hegan, laster ekarriko deu eurixa. *Oilluak* zorrixak kentzen diharduenian, laster egingo deu okerrera eguraldixak.

Etxeko ardixek-eta illuntze aldian jateko gogo haundixa baldin badake, hurrengo egunian eguraldi txarra. Ardixok mendialdetik behera badatoz, laster edurra. Bati baiño gehixori entzun diot, behixak soltau eta mendi aldera badijuaz segitxuan, hurrengo orduetan eguraldi ona datorrela. Eta, kortatik atera eta larrera nahi ez juanda dozenian, hurrengo orduetan eurixa dakarrela, eguraldi txarra.

Txitxariak kanpora ertetzen badeue, laster eurixa. Marma haundixak azaltzen diranian ere eguraldi txarra ei dator, eurixa-eta.

Biharbada, orain arte aitxatutako gehixenak sasoi baten bizi izandako esperientzian oiñarritxuko ziran, baiña badira beste batzuk siñeskeratzat hartu leikezenak. Adibidez, *marigorri* izeneko mamorrua topautakuan, umiek eskuan hartu eta galdetzen zixuen "Marigorri gonagorri, bixar euzki ala euri?" Gorutz egitxen

bazoan eguraldi ona etorriko zan, eta behera egin ezkero eurixa. Euskaltzaindiako sortzaillia izan zan Azkue abariak Mutrikun batu zoanez, marma beltz haundixak iragartzen deu etxian baten bat hilko dala. Beste hau ere batu zoan gure lekeitxiar euskaltzaliak: Oillarrak gabaz zazpi kukurruko jo ezkero, etxian baten bat hilko dan seiñalia.

Astuari ez zako hain errez ahazten mendi-bide baten barruna egindako ibillaldixa. Konparaziotako, urruti egonda ere, Bizkai aldeko errota jakin batera juandako astua baserriko gaztienakin bialdu zeiken, ez zauan-eta galtzeko arriskurik. GPS biharrik ez zauan orduan. Animalixen intuizio hutsa.

Azken urtietan ezkutuko zentzumen hori konfirmau digue ikertzailliek. Oraintsu jakin deuenez txakurrek bildurra usaiñaren bidez sumatzen deue. Eta, hondamendixak datozenian animalixak izaten dira lehelenguak konturatzen. Kontua izaten da animalixen seiñaliei kasu egitxia, izan ere, hain "aurreratuak" geranez ez dixeu jamonik egitxen…
2004ko abenduan, Indiako Ozeanuan (Indonesia-India) izandako lur-ikarak sortutako tsunamixak hainbat lagun hil zitxuan, baiña bertako isla batzuetako tribuek txorixen kantu eta itsasoko animalixen portaera berezixari erreparau eta arriskuren bat zatorrela igarritxa mendi aldera juan ziran. Horrek salbau zitxuan.

Punta-puntako teknologixa daukagu, satelitiak, GPSiak... baiña oraindik ere, batzuetan, animalixek hobeto –eta lehenuo– hartzen dixue neurrixa naturari. Zerreitxio? Geure aitxon-amonek naturarekin zakaen harremana galdu egin gendulako. Izadixari adi egotia da kontua, guk uste baiño gauza gehixo esango diguz-eta.

Josu Larrañaga Arrieta

Errotaberri

Gaur egun Errotaberri izeneko bi baserri egon arren, *Errotaberri bekua* baino ez da izan errota. Ahozko zein idatzizko lekukotasunei kasu eginez, esan dezakegu Errotaberri goikuan ez dela inoiz errotarik egon.

"Errotaberri" izena eduki arren, ez da atzo goizekoa errota hau. 1531. urtekoa da aurkitu dugun lehen aipamena. Bitxia bada ere, XVI. mendeko dokumentazioan erdarazko izenak baino ez ditugu jaso: *Rueda nueva* (1531,1542) eta *Molino nuevo* (1556, 1587, 1602). XVII. mendetik gaur egunera arte euskarazko izen bera izan du: *Errotaberri*. Aldaera txikiak baino ez ditu izan: *Errota berria* (1632), *Herrotaverria* (1691, 1694), *Rotaberria* (1698), *Errotaverria* (1702, 1750), *Rottaberria* (1747), *Errotaberri* (1775), *Errotaberri abajo* (1806), *Errotaberri* (1895), *Errotaberri-bekoa* (1929)…
Bistakoa denez, oinarrian, *errota+berria* osagaiak daude. *Errota* hitza irakurri edo entzunda gehienoi makineria osoa datorkigu burura: errotarriak, ardatza, ur-ontzia… Baina kontuan hartu behar dugu termino horren jatorrizko adiera "errotarria" dela. Gero, hedaduraz, harriaz gain instalazio osoa izendatzera pasatu zen. Latinezko hitz batetik dator, *rota*. Hortik gaztelaniazko *rueda* eta euskarazko *errota* sortu ziren.

Mijoa errekatik gora eginda Isasi-errotaren osteko errota izan zen Errotaberri. Bere bi errotarriek azken hamarkadetan nagusiki artoa ehotzen lan egin zuten. Errotaberrik ur-ontzia husten zuenean, Isasi-errotak aprobetxatzen zuen ur hori.
Horrela adierazten dizkigu bere mugak 1531ko dokumentu batek: "de la una parte la rueda llamada Xiquysalto (Txikisalto edo Isasi-errota) y de la otra parte las agoas de Mixo". Urte horretan, errotaren laurdena erosi zuen Maria Juan de Barroetak urrezko 290 florin ordainduta. Gainerako hiru zatiak Licona eta Carquiçano familiarenak ziren. Ohikoa zen sasoi horretan errota bat –bere jabetza– hirulau zatitan banatuta egotea.
1556. urtean Elgoibarko komenduko mojena zen errota erdia, eta aipatutako Barroeta andrearen semeari (Sancho Davil de Aguirre) saldu zioten. 1694. urtean Antonio de Lizaranzu eta Ana Mª de Ituarte andre-gizonek errentan hartu zuten 3 urtez errota honen laurden bat eta Amieta errotaren erdia; hau zen urteko errenta: 9 anega gari, 3 anega arto, 3 kapoi eta bertako sagastiek ematen zuten sagarren erdia. 1747an Miguel Francisco Dominguez zen jabea eta 9 urtez eman zien errentan Yramategui-Zendoia andre-gizonei urteko 14 anega gari, 2 anega arto, 4 kapoi, bertako sagarraren erdia eta jabearen mahastietan 4 egunetan lan egitearen truke.

1896. urtean Illunbe etxekoekin gatazka txiki bat izan zuten Errotaberrikoek aldaparia edo kanala euren lurretatik pasatzen zela-eta.
Errotaberrik urak Amieta ondoan hartzen zituen Artzainerrekatik eta Etxerre aldamenean Ondaberroerreka-Ikutzaratzetik. 1929an ur-publikoen aprobetxamenduaren inskripzioa eskatu zutenean aitortu zutenez erreka nagusitik (Artzainerreka) segundoko 50 litro hartzen zuten eta bigarren mailako horretatik (Ondaberroerreka) segundoko 18 litro.
Aurreko baten esan genuen Isasikoa izan zela lan egiteari utzi zion azken errota; Errotaberriko hau berriz, azken aurrekoa izan zen: 1968. urtean egin zuen azken ehoaldia. Jesus Basurko izan zen azken errotaria.

Gaur egun, ur-ontziaren horma zati bat eta antepararen zatitxo bat besterik ez dira geratzen. Hori, eta bertara artoa ehotzera eramandako hainbat mutrikuarren oroitzapen ederrak.

Javi Castro eta Josu Larrañaga

"ARBITRATZEN GOZATU EGITEN DUT"

Igotz Gallastegi (1970) gazterik hasi zen errugbi munduan; gaur egun epaile lanetan aritzen da. Errugbiari eskaini dizkion urte horietan txoko eta jende ugari ezagutu ditu. Zenbait taldetako jokalaria izan da, eta irribarrez zera dio: "kirol guztiek izan beharko lukete hirugarren denbora, errugbiak daukan moduan".

Epaile lanean hasi aurretik, zer lotura zenuen errugbiarekin?
Epaile lanetan diharduten ehuneko laurogeita hemeretzi aurrez errugbi jokalariak izan direla esango nizuke. Nik neuk etxean ezagutu dudan kirola errugbia izan da; aita Irlandan hasi zen kirol honetan eta kopako txapeldunak izatera heldu ziren. Beraz, nire anaiek eta nik etxean ikusi eta ikasi dugun kirola hauxe izan da. Getxo taldean eman genituen gure lehen urratsak; hamabi bat urte nituela hasiko nintzen. Ondoren, Zaragozara joan nintzen ikasketak direla-eta; bertan, jokatzeaz gain, arbitratu eta gaztetxoak entrenatzeko aukera ere izan nuen, ez baitzegoen nahikoa lagun.

Beraz, arbitro lanetan lehen pausoak Zaragozan egin zenituen?
Bai. Ondoren, Zaragozatik Irlandara joan nintzen, ikasketekin jarraitzeko helburuaz. Talde batean jokatzeko aukera izan nuen bertan.

Nola hartu zenuen epaile izateko erabakia?
Daukadan lanak alde batetik bestera ibiltzera behartzen nau, eta ezin nuen errugbi talde batekin konpromisorik hartu. Beraz, nolabait kirol honekin kontakturik ez galtzeko arbitratze lanetan hastea erabaki nuen. Behin errugbia ezagutzen duzunean zaila da barruko "mamorrotxoa" kanporatzea eta guztiz ahaztea.
Horrez gain, kirol honek daukan gauza ederrenetarikoa hirugarren denbora da, benetako lagunak egiten baitituzu. Azken finean, guzti horrekin eta lagunekin kontaktuan jarraitzeko hartu nuen erabaki hori.

Zein mailatan arbitratzen duzu? Europan izan zara ezta?
Bai, maila internazionalean ere arbitratzen dut: Suedian, Suitzan… baina, baita maila nazionalean edota maila txikietan ere (infantilekin-eta).

Eta zer moduz etxetik kanpo?
Oso esperientzia politak izan dira. Azken batean, kirola bera da, zerbezak ere bai, eta giroa hemengoa bezalatsua: oso ona! Ikusleek errespetu handiz jokatzen dute. Errugbiko jendea errugbiko jendea da, hemen, Australian nahiz Irlandan.

Errugbiko araudia nahiko konplexua dela esango nuke. Ikastarorik egiten al duzue?
Bai, urtean bi ikastaro egiten ditugu; horrez gain,

azterketa teorikoak eta fisikoak. Urtetik urtera kirolaren araudia asko aldatzen da, gehien aldatzen den kirola dela esango nuke. Azken batean, jokoaren bizitasuna mantentzea da helburua, moteltzen ikusten den momentuan, araudia berritzea erabakitzen dute goian dauden komiteko buruek.

Arazorik izan al duzu hartu duzun erabakiren batengatik? Gogoan duzu huts egiterik gogorrena?
Bai, baina zelaian bertan azaltzen baduzu eta egin duzun hanka sartzeaz konturatu bazara, dena zerbeza batekin konpontzen dugu. Egia esan, jokalariak beraien artean konpontzen dira, epaileok lagundu besterik ez dugu egiten. Taldeak beraiek erregulatzen dira, kapitainaren ardura eta lana garrantzitsua izanik. Jokalari bat zikin portatzen bada, ziur eduki bueltan jasoko duela, partidua luzea baita eta horretarako astia baitago. Horrez gain, errugbiko epaileok beste kiroletan ez duten ahalmena dugu, kirolari baten protestak talde osoari eragin baitiezaioke.

Gazteak animatzen al dira arbitratzera?
Bai, geroz eta gehiago. Gipuzkoan izugarrizko lana egiten ari dira. Javier Blanco epaileak, “Txuri”-k gazteen artean lan handia egin du. Gu horiei laguntzera joaten gara.

Mutrikuko errugbi taldearekin jokatzeko aukerarik izan al zenuen?
Bai, noski. Zarautzen izan genuen partidu batez gogoratzen naiz. Orduan, Getxon jokaten nuen, jubeniletan. Urte hartan, partidu guztiak irabazi genituen: Espainiako txapelketa, Portugalen kontrakoa… oso talde ona genuen. Eta Zarauzko partidu hartan, 3-0 irabazi genuen Mutrikuren kontra, justu-justuan. “Hauek zeintzuk dira, ba?”, pentsatzen genuen. Talde gogorra benetan! Taldearen izaera gustatu zitzaidan. Mutrikuko taldea mantendu izan balitz, jokalari izaten jarraituko nukeen edo, agian, gaztetxoen entrenatzaile, ziurrenik ez nintzatekeen epaile izango. Gustatuko litzaidake Mutrikun eskola bat sortu eta hemendik, gero, Zarautz edo Eibarra bideratzea gaztetxoak. Afizioa badagoela nabari da. Horretan, Eli daukat zirikatzaile, seme-alabak errugbi munduan sartzeko. Erretiratzen naizenean, ikusiko dugu.

Errugbiak zer dauka?
Hirugarren denbora, argi! Eta, bestalde, askatasuna ematen du; baloiarekin aurrera joan, bultzatu, txirku egin, lurrera bota, aurrekoari heldu, harrapatu…
Talde-sentimendua asko indartzen da; taldeko handienak ere zure beharra izatea… ufff! Itzela da! Taldeko kide bakoitzak bere lana dauka; lodiak, txikiak, argalak, bizkorrak… eta guztiena da beharrezkoa eta garrantzitsua, horrek talde-sentimendua asko indartzen du.

Zertan datza hirugarren denbora?
Errugbia kontaktu asko duen kirola da, eta beti sortzen dira tirabirak. Hirugarren denboran, jokalari, epaile, entrenatzaile… guztiok elkartu eta zerbezak eskuetan ditugula partiduko tirabira guztiez hitz egiten dugu; batzuetan, ordubetez eta, beste batzuetan, goizaldera arte. Hirugarren denboran dena konpontzen da! Nik uste dut kirol guztiek izan beharko luketela hori.

Epaile gisa, zein da zure ametsa?
Euskal Herria Zeelanda Berriaren aurka (All Blacks) Munduko kopako finalean arbitratzea eta Haka dantza bertatik bertara ikustea —ahal bada, Dublinen— eta Euskal Herriko taldean nire anaia Orkatz jokatzen ikustea.
A! eta Aupa Mutrikuko errugbi zaleak.

TEKNOLOGIA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK...

Doinua: Bihotzean dut min
Egilea: Udane Mugerza

1
Azken aldian modan jarri da
"Whatsapp" deritzon sistema
ta ondorioz gure inguruan
geuk sortu dugu problema.
Oso normala bihurtu zaigu
elkarrizketan barrena,
nahiz ta aurrean den lagunari
bi hitz eskaini aurrena,
gero mobilai eskeintzen dio
bere atentzio dena.

2
Parranda baten ingurutara
momentuan begiratu
ta bitxikeri harek ninduen
une hartan asaldatu.
Pantaila batek hiru-lau mutil
zituen bereganatu
egoeraren larritasunaz
nintzen hartan konturatu.
Nola liteke haragizkoa
birtualak ordezkatu?

3
Mezu bidezko elkarrizketa
edo milaka irudi
sarean zehar hara ta hona
edozer daiteke mugi.
Gainera askotan bihurtu ohi da
lagunen arteko zubi,
bertatik hainbat informazio
heldu dakizuke zuri
bertan partaide ez den pertsonak
Isolatua dirudi.

4
Inolaz ere falta zaizkigu
ikusteko, bai ederrak!
Lehen gutxi ez ta sortu dira
informatikoen gerrak,
Deustun wifia duela gutxi
manipulatu hackerrak,
lau haizetara dena zabalduz
zeinen helburu okerrak,
hori egitera ausartzen diren
friki kuadrila ankerrak...!

5
Emeki-emeki gu jarri gara
teknologien gerizan,
beste edozer baino oraindik
garratzitsuo bailitzan.
Ez naiz seguru ea dakigun
horrekin zertan gabiltzan.
informatika asmatu zuten
aurrera pausuan gisan,
beraz hartatik menderatuak
ez gaitezela gu izan!

2013ko Santa Eskea

Santa eskea otsailak 2an
Santa agedan omenez
aterik ate aritu ginen
hotzari aurre eginez

Aurtengo hontan Santa Eskeak
bazituen bi helburu
parte hartzea bultzatu eta
Kultur taldeei lagundu

Bost talde eder osatu ziren
laurogei lagun denera
Inoiz etorri ez zen jendea
animatu zan gainera

Hasi Mijoan, Galduamendin
segi Olatz ta Ibirin
baita herriko kaletan berdin
Langa ta Astigarribin

Ohitura zarrak ustartzen ditu
kantua eta eskea
beste behin ere eskertzekoa
jendean borondatea

Limosna nora bideratu den
esplikatzea komeni
zati bat bertso eskolari ta
bestea Zine Forumi

Eskerrik asko Mutrikuarroi,
hor jarraitu parte hartzen
ohiturei eusten dien herriak
nortasunik ez du galtzen!!!

Mutrikuko Bertso Eskola

FANTASIEN EREMUA

Joan zen astean bikotekidearekin nengoen bitartean, nire burura fantasia bat etorri zen. Nahiz eta momentuan gustuko izan nuen, kitzikagarria baitzen, gaizki ere sentitzen nintzen, ez baita bizitza errealean gustuko izango nukeen zerbait. Nire inkontzientea nire benetako gustuez ari ote da?

Hasteko, ahaztu dezagun inkontzientea, ez baikara psikoanalistak eta ez dugu egituraketa hori kontsideratzen konkretuki edo gidari bezala. Bestetik, sarritan interpretazio sinplistak egiteko joera izaten dugun arren, gure buruaren hizkuntza ezezaguna eta oso konplexua izan daiteke.

Galderak aipatzen duenari jarraiki, iruditzen zaigu nahiko argi duzula zer duzun gustuko eta zer ez. Askotan, fantasiak errealitatearekin konparatu eta errealitatean gauzatu nahi izaten ditugu, baina fantasiak benetako errealitate izateko aukera ebaluatu behar dugu: batzuek fantasien eremuan bakarrik funtzionatzen dute, besteak ezinezkoak dira edo mundu errealera ekartzean indarra galtzen dute.

Gure buruan, nahi duguna kontrolatzen dugu, guk manipulatzen ditugu irudiak, mundu errealean ez da horrela gertatzen, ordea. Egunerokotasunean desio ez ditugun gauzak agertzea gure irudimenean, hori gertatzen da. Azken batean, hemen ihes egiten diguna ez da inkontzientea, neurologia bera baizik, ez dakigu zergatik ditugun gauza batzuk gustuko eta beste batzuk ez; irudimen horretan, gure neuronen funtzionamendurik basikoeneko gauza batzuk argi ez baldin badaude ere.

Fantasia sexualak pribatu eta intimoarekin lotu izan dira, debekatuarekin, morboarekin, zikinkeriarekin, pekatuarekin edo eta erruduntasunarekin. Hala ere, fantasiak —askotan bikotearekin edo bakarka, norbaitekin konpartituz edo geuretzako gordez— sarritan egiten dugun praktika bat dira.

Eskema eta ordenu sozial nahiz petsonalak apurtzean, sarritan, errudun-sentimendua sortzen zaigu, ordea. Fantasia sexualak gure buruan gertatzen dira eta kontraesanetan jartzen dituzte arau moral, sozial nahiz sexualak.

Nahiz eta fantasiez gozatu, elikatzen jarraitzen dugun ideia bat dago: "fantasiak hutsune bat dugunean sortzen ditugula", eta horrek hainbat kontu kuestionatzera eraman gaitzake: "Beste pertsona baten beharra al dut", "Ez al nau nire bikoteak ipintzen/erakartzen...?", "Gertatzen den kontua al da fantasiak izatea"...

Askotariko edukiak izan ditzakete fantasia sexualek, bakoitzaren sorkuntza mailaren araberakoak izango dira askotan eta beldurrarenak beste batzuetan. Ez dugu debekatuaren mamuaren kezkarik izan behar, ordea; horrek ez ditu gure desirak islatzen. Nahiz eta bikotekidearekin gustura sentitu, fantasiak izatea normala da. Hortaz, hobe izangu dugu horiekin gozatu eta nahi ez dugun bitartean bizitza errealera eraman ez.

Ez dezagun ahaztu, beraz, gure organu sexualik garrantzitsuena burmuina dela eta erabil dezagun bere potentzia. Imaginatzen duenak berak zuzentzen eta zehazten du bere fantasia hori, bertan agertuko diren pertsonaia guztien gidoia idazten du eta nahi dituen pertsonaia guztiak sartzen ditu. Goza dezagun askatasunez, aurretiko konpromiso eta promesarik betetzea eskatzen ez duen eremu horretan.

Geuretzat gorde dezakegun zerbait da, gure askatasun osoaren eremu txiki bezain zabal bat; beraz, zaindu eta landu dezagun gure irudimena. Inori azalpenik eman beharrik ez dugun txoko horri, beraz, zergatik ateak itxi?

Bukatzeko, emakume eta gizonezkoen fantasiak jasotzen dituen bi liburu irakurtzera gonbidatzen zaituztegu. *Mi jardin secreto* (emakumeen fantasiak jasotzen dituena) eta *Sexo Varón* (gizonezkoen fantasiak jasotzen dituena), biak Nancy Friday-renak.

IXA sexualitate eskola

Galderak egiteko:
ixasexualitateeskola@gmail.com

ZORIONAGURRAKZORIONAGURRAKZORION

AMAIA
Zorionak zuri, zorionak zuri... Otsailaren 14an 9 urte handi eh?. Muxu handi bat etxeko denon partez, eta bereziki, Ainhoaren partez

ARANTXA
Zorionak amona Arantxa! Irati eta Anerren partez, otsailaren 9an urteak bete dituzulako.

ENAITZ
Gure etxeko motorista txikiari otsailaren 8an 2 urte bete dituelako Zorionak! etxeko danon partez, bereziki Naroak.

MAIALEN
Zorionak Maialen 9. urtebetetzean. Irribarre eta goxotasun polit horrekin jarraitu! Muxuak etxeko denon partez.

HORACIO
Zorionak otsailaren 17an 80 urte egin dituzulako. Preparatu zelebratzeko lagunekin.

ODILE, LIDE,
MAIALEN eta JUGATX
Zorionak laukote zuen 9. urtebetetzean. Jarraitu horrelako neska txintxoak eta alaiak izaten! Mila muxu lagunen partetik

HIRUKOTE
Zorionak hirukote! Hasiko duzuen urte berria oparoa eta alaia izan dadila. Matxo haundi bat.

ASIER
Zorionak txapeldun! matxo haundi bana aitxak, amak eta arrebak.

IXONE
Etxeko panpoxari txokolate eta marrubizko 8 muxu otsailaren 10ean bere urtebetetze eguna izan zelako. Aitxon-amonek eta etxekoen partez.

LUR eta LOLI
Zorionak Lur eta izeko Loliri, otsailaren 15 eta 18an urteak beteko dituzuelako. Amonanea pastel asko ekarri. Danon partez, matxo asko.

SOCORRO
Zorionak ama, amona, birramona! Etxeko danon partez matxo eta besarkadak.

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...
KALAPUTXI
Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748393
kalaputxi@topagunea.com

1953an Egaña lantegia eta bertako langile batzuk.

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

IÑIGOBELEN
konde 3 - tfno.: 943603701
argazki lanak
erreloke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/kolorean
euskal preso eta iheslariak etxera

ZAINTZAKO BOTIKAK

OTSAILA: Gaueko 10ak arte.

18tik **21**era Zalduegi
22tik **24**ra Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
24tik **27**ra Zalduegi
25etik **28**ra Otxagabia

MARTXOA: Gaueko 10ak arte.

1etik **3**ra Apraiz
4tik **7**ra Burgoa
8tik **10**era Zalduegi
(zapatu goizian Otxagabia)
11tik **14**ra Apraiz
15etik **17**ra Otxagabia
18tik **21**era Zalduegi
22tik **24**ra Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
25etik **28**ra Otxagabia
29tik **31**ra Apraiz

Gaueko 10etatik aurrera
ELGOIBARREN
ikus 4. orrialdea

MENDI IRTEERAK

MARTXOAK 17

GOIZ MENDI ITZULIA
ETA
SAGARDOTEGIAN
BAZKARIA

MENDIZ - MENDI
Mutrikuko mendi-film zikloa

BURUMENDI M.T. eta SORGINE-RREKAK antolatuta

>Otsailak 21, osteguna:

"MENDI-BIZIKLETA ZEHARKALDIA MONGOLIATIK"
Non: Bare-Bare tabernan
Ordua: Arratsaldeko 19:30
Aurkezlea: Garikoitz Basterretxea (Kilkerra)

>Otsailak 28, osteguna:

"HUTSAREN GAINEAN DANTZAN" Slack Linearen historia.
Non: Zubiaran tabernan
Ordua: Arratsaldeko 19:30
Aurkezlea: Iñigo Larrañaga (Txirrita)

>Martxoak 7, osteguna:

"KANADAKO ESKALAEZINAK"
Non: Subeltz tabernan
Ordua: Arratsaldeko 19:30
Aurkezleak: Igor Mendizabal (Goxerri) eta Jokin Larrañaga

>Martxoak 14, osteguna:

"MUNDO PERDIDO" Venezuelako Tepuy-en historia eta eskalada
Non: Goitik-Behera tabernan
Ordua: Arratsaldeko 19:30
Aurkezlea: Adolfo Medinabeitia (gazteiztarra)

Laguntzaileak:
MUTRIKUKO UDALA – BARE-BARE – ZUBIARAM – SUBELTZ eta GOITI-BEHERA tabernak.

lea artibai
ikastetxea
Etorkizuna eraikiz

Ate irekiak
Puertas abiertas
Martxoaren
2an!
10:30etatik 13:00era

- PRESTAKUNTZA ZIKLOAK
- BATXILERGOA

94 616 9002
info@leartik.com
Xemein Etorbidea 19, Markina-Xemein (48270)
www.leartik.com

GEHIAGO JAKIN NAHI DUZU?

apain

maitasuna bezala,
zainketa estetikoa
biren arteko gauza da

. gimnasia abdominal hipopresiboa
. erditzea prestatzeko
. luzaketak
. mikropigmentazioa
. drainatze linfatikoa
. galileo fitness
. sabel osteopatia
. fisioterapia
. indiba
. laserra
. zelulitisa gutxitzeko
. presoterapia
. estriak berdintzeko
. larru azala sendotzeko
. depilazioak
. betiletako permanentea
. laserra
. solariuma
. makillajeak
. betileak tindatzea

Domingo Ibaibarriaga, 3 - 20830 MUTRIKU
apain@apain.net - Tlf.: 943 60 42 29

estetika · fisioterapia

CÓNDOR

Arrain kontserbak

ZIZZO BILLANTE HNOS. S.A.
Industrialdea Mijoa, s/n. P - 2.1 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) - ESPAÑA Telf. 943 - 60.31.41 / Fax. 943 - 60.44.39

E
12.00.566/SS
C.E.